Euskarazko Kantak

zaharrenetarik hunat.

1. — Bortz ofiziale motetakoen zirikatzeko.
2. — Senhar berantiar gaizki hartua.
3. — Ai! ai! ai! mutilla! chapela gorria...
4. — San Iñazioren urhatsari eratchiki hitzak.
5. — Marguiñako iturrian Moguelek eratchiki hitzak.
6. — Napolean IIIgarrenari Bidartar batek.
7. — Guernikako arbola!
8. — Ez, ez, nahiago dut egon muthil zahar.
9. — Eliza - besta.
10. — Ama sehaskaren aldean.
11. — Armadatik etcherat.
12. — Muthico gaztearen azken orena.
13. — Muthico gazte eria.
14. — Nere etchea.
15. — Ikhatz-Ketako mandoa.
16. — Andre griñaric gabea.
17. — Bazcari bat.
18. — Bordachuri Hazparnekoa.
19. — Bi gizon gazteren arrozoiñamendua.
20. — Ferietako placerac.
21. — Itturriñgo joareille, Erramon Joaquiñ.
22. — Donostiaco hirur damacho.
23. — Etsaiac sartzen (1814.)
24. — Emazte edalia.
25. — Oderik Aita Sainduaren soldado.
26. — Emazte edalea.
27. — Emazte truklariak.
28. — Santa Luciaren Kantika.
29. — Eskaldunek Aita Sainduari.
30. — Chori Kayolatik ihes egina.



Euskarazko Kantak. (Suite). 2.

37. — Burdin bidearen gainean.
38. — Escualdunek Aita Saind: Jub. sac. de Léon XIII.
39. — Uskaldun Suberotarrek Aita S. — id.
40. — Kantiac Irigoin haquin atheratzaliaren gainean.
41. — Ongi-ethorria J. P. Elissague, Donib. err. berr. (Saubabel.)
42. — Phertsu berriag Escualdun-airéan (1897.)
43. — Tratiko artzaina. (1)
44. — Galerna bat mendian.
45. — Aitan baten eriotza.
46. — Aita San Antoniori.
47. — Arkakusoa.
48. — Sakristauen eguikerak.
49. — Kiriskiletachoa.
50. — Chorale Luzienne: Divers.
51. — Larraineko Albadak.
52. — Egumberriko Cantico bat.
53. — Ama Birjiña Begoñacuari.
54. — Gure Charamelekin: Eguberri.
55. — Cantica San Antonioren ohoretan.
56. — Goazen Lurdera.
57. — Berso berriac: Eguberri eguneco.
58. — Juana Vishenta eta Nagusia.
59. — Santa Aguedaren Berso berriac.
43'. — Murde Landerreche Koplariari.
60. — Camoussarry. — Ene liraren aukenak.
61. P. Adame. — Semenariako eria.
62. Zazpiak bat (Izarra).
63. Colosako gazte mendi maitatzaille ai.
64. Atharratzetik.

EUSKALZALEEN
BILTZARRAREN

Euskarazko Kantak. (Suite.) 3.

65. Laborien adiskidiak.
66. Zibero, laphurdi, Garazi.
67. Ongi-ethorri, Eyherabide, jaun erretor berriari.
68. Harotzaren Kantuak.
69. Zazpiak bat.
70. Astoa eta hirur jabeak.
71. Sarako urzo ihiztariak.
72. Irungo pilotu partida (Gaskoina)
73. Gaiten ~~euskaraz~~ mintza.
74. Nere herriko besta. (Oxoby.)
75. Oihartzunak zer dio? (id.)
76. Otchalderi (oxobi).
77. Kanta zak otthia. (Ox.)

Gure Aita Bordeaux, le 31 Decembre 1912.
'ona; hala nola Andu janikatier hauk
deitzen hachtugen bihotz anes Mon cher Oncle Gure
'ama onak: zu eta hoik izen edérrez,
Aitu eta Ama deithuky, bainan hartzen zai-
tuztegularik Je ne veux pas laisser passer
mun cette nouvelle année sans venir vous expri
duko mer tous mes vœux pour une bonne et
urhakheureuse année. Je vous souhaite que
setan Dieu vous accorde une longue et
zerukheureuse vie bidea erakutti natti
darakugun Quant à vous mon Oncle, j'
izar espère que vous y vous portez mieux
eder à Espelette qu'à St Jean de Luz
gidaritzat que ce climat vous est favorable
à votre état.

Nous trois, nous sommes éga-
lement bien portants.

Quant à moi, je suis tou-
jours très heureux à la Chambre de
Commerce.

Veuillez recevoir, mon oncle,
de votre neveu, ses plus respectueuses
salutations.

Jean Pascal

Andre-Dena-Maria Elhurretakoaren Eliza, Erroman, 4 garren mendean, San Liborio Aita Saindu zelarik egiña.

Airea: Aita batek bazituen...
(Haur prodigoa.)

1.

Bi espos maitek egunak
Zeramazkaten ilhunak,
Aberats handi zirelarik ez zirelakotz haurdunak,
Zer egin ez zakizketela noizbeit bere onthasunak.

2.

((Dohatsu)), baitzen errana,
((Nigarretan dabillana.))
Ametsetan ikusi zuten ethorria ~~beregana~~ berengana,
Zeruko Ama, zioela zertan ezar onthasuna.

3.

((Emozue Mariari,))
((Ama amulsuenari,))
((Elizetan aberatsena galdez nagotzuenari,))
((Eman dakizuen zeruan tronu eder bana sari,))

4.

((Zuen señale segura))
((Bihar goizean elhurra)),
((Nahiz erretzen ari duen hilabethe hunek lurra.))
((Elhur bazterrari jarraikiz eman lurrari haintzurra.))

5.

Biharamun goiz goizean,
Lotarik atheratzean,
Bozkarioz gainditu ziren zoina bere biotzean,
Elhurra dirdiran ikusiz Agorrillaren bortzean.

6.

Liboriok amets bera
Egin zuen goiz aldera,
Lekhukotasun ederrena ikusiaren gainera:
Eman ziren ordu beretik Elizaren egitera.

7.

Zilhar jorraia besoan,
Liborio buru zoan,
Joanesekin Andrea ere, urhe phulokak alzoan;
Eskas zenaz ez zuketela athe jotzerik auzoan.

8.

Langileak Erromatik,
Bai Italia guzitik,
Zilhargiñak lehenetarik zituzten Orientetik,
Elizaren ederresteko beren bothere guzitik.

9.

Aphaindu ziren harriak,
Legundu marmol larriak,
Urre zilharrak urthuz egin Erretaul ikusgarriak,
Bai harat lehiatu ere familla eta herriak.

10.

Hamasei ehun urtheak
Ditu gauzaren hasteak
Ez dire gutitzen ikusi Mariaren fagoreak;
Ez dire gutitzen hasiko deratchizkon ohoreak.

(Agorrillaren 30 oan 1902 garrenean.)

N° 9

Ohorezko aiphamenez goretsia. (Urruyne 1902.)

1900co AZKAINECO BESTETAN SARISTATU KANTU BERRIAK

LEHEN GARHAIT SARIA

IRATIKO ARTZAINA

AIRE HUNEN GAINEAN : « ~~Ene andria ohian.....~~ » « Orai noha katatzerat... »

1

Garazi bortu gainean,
Iratiko oihanean,
Artzain bizi naiz uda denean,
Fagoaren gerizean,
Garazi bortu gainean,
Iratiko oihanean.

2

Choragarri da bortua,
Elhurra bada urthua :
Bazka gizenen badu hautua,
Uda negu urtatua :
Choragarri da bortua,
Elhurra bada urthua.

3

Gora fagoa hedatzen !
Berotik nau gerizatzen :
Gauak zerua du urheztatzen
Ihintz gozoa ichurtzen :
Gora fagoa hedatzen !
Berotik nau gerizatzen.

4

Errege dugu jarria
Marro bulumba larria :
Utzirik dabil bozik herria,
Adar handi bihurria :
Errege dugu jarria
Marro bulumba larria.

5

Ardiak dohaz ondotik,
Bulumba hasiz geroztik :
Berrehun goare ozen lephotik,
Athera ziren herritik :
Ardiak dohaz ondotik,
Bulumba hasiz geroztik.

6

Otseho, buru zabala,
Handi duk hire ahala :
Behar orduko baduk uhala,
Sendo burdiña bezala :
Otseho, buru zabala,
Handi duk hire ahala.

7

Artzain bagare mendian,
Saro zabalen erdian :
Chirola dugu eguerdian,
Pilota bere aldian :
Artzain bagare mendian,
Saro zabalen erdian.

8

Olha zaharren barnetan,
Coblak, curia denetan,
Errepikatzen dire artetan
Bi eta hirur bozetan,
Olha zaharren barnetan,
Coblak curia denetan.

9

Chantcho nik maite dudana
Da chirolaz hoberena :
Hurbilarazten du beregana
Garmin artzain mokhorrena :
Chantcho, nik maite dudana,
Da chirolaz hoberena.

10

Choratzen du arthaldea
Uzterat alhapidea ;
Otsoak ere galtzen gosea,
Guganat hartzen chedea !
Choratzen du arthaldea
Uzterat alhapidea.

11

Chirolak ditu oihanak
Hasperenetan emanak :
Errekan dire jausten auhenak :
Chirolari daudezenak !
Chirolak ditu oihanak
Hasperenetan emanak.

12

Bortuan sasoin ederra !
Chantchori diot eskerra.
Baderamaiot, neure beharra,
Mizpira baten adarra.
Bortuan sasoin ederra !
Chantchori diot eskerra.

13

Nik badut kaiku berria,
Chantchok aurthen ekharria :
Zurean lanthuz du ezarria
Dantza khordan gazteria :
Nik badut kaiku berria,
Chantchok aurthen ekharria.

14

Ibaia doha luzatuz,
Itsas alderat handituz :
Ithurburuan ahuspekatuz,
Suntsitzen dut hurrupatuz :
Ibaia doha luzatuz,
Itsas alderat handituz.

15

Hedoia dathor airetan
Su zimiztak erraietan !
Ihortziria sarkhor denetan,
Zeinhatzen naiz ikharetan !
Santa Barbara, ni baithan,
Balia zaizkit gau huntan !

16

Iguzkia zauku sartzen.
Belhauniko gare jartzen.
Igandez *Credo* dugu kantatzen.
Olhartzunek ihardesten !
Bihotzak dire mugitzen
Eta begiak bustitzen.

17

Harrotzen dut hausperria,
Aphaintzeko janharia :
Chingar, esneki, thalo guria !
Lakhet dugun hazkurria,
Ikhus artean herria,
Hoiche da gure bizia.

18

Zimaildurik iratzea,
Egiten dut ohatzea.
Ez baita luze loharkatzea,
Maiteekin mintzatzea !
Egik, Otseho, zaintzea,
Otsoekin hizkatzea !

19

Bestak herrian badire,
Ezin gohazke batere.
Igortzen ditut hemen halere
Goraintzi choil hauk nik ere :
Kantatzen ahal badire,
Ez dut galdetzen deus ere.

M. LANDERRECHE,
Apheza.

OHOREZKO AIPHAMENAK

GALERNA BAT MENDIAN

AIREA : « *Lurraren pean,* etc. »

1

Arratsalde erditan zerua hasi zen dena goibeltzen;
Ilaize borthitz bat gero bortuan laster zen eman altchatzen,
Mendi hegalak oro zituen errabietan zafratzen,
Harripegna zahar handieri azkarki zela oldartzen.

2

Othe loredunen Kachkoetan chorittoak pausatuak
Alde guzietara zagozkan mendealak harrotuak,
Arranoak aldiz urrunetik heldu ziren izituak :
Heyen hegal-hurrumbaz zirela dardarikatzen hortuak.

3

Mendiaren hegier behera arizain bat heldu zen huchtuz,
Aintzinean arthalde eder bat laster handitan haiatuz,
Bainan ardiak multzo batean beren buruak gordatuz,
Marrakaz zagozin geldituak batak bertzea berotuz.

4

Bat batean du ihurzuriak hedoietan karraskatzen,
Mendia da ikharan emaiten baliz bezala urratzen,
Chimichak chimichtaren gainean zerua du arrailatzen
Eremu ilhunak dituela bultagno batez erratzen.

5

Uri-uharrak dira erortzen harrabots azkarrenetan;
Ur-errekak gorri-beltzatuak doazi mendi-paretan;
Arranoak aldiz uzkurtuak beren hegal handietan,
Bi begiak hetsirik dagozi harripegna ziloetan.

6

Luzaz ongi zafratu ondoan ikharan zagon bortua
Eztitzen aphur bat hasi zuen haizeak bere huchtua;
Uria da emeki emeki hedoietan athertua,
Zeru goibelduan iguzkia huna nun den agertua.

7

Orduan berean arranoak oro dira iratzartu
Eta harri ilhunen gainean ezti eztia chutitu;
Beren hegal bustiak dituzte harrabotsekin zafratu
Eta karranka handitan dira zeru gainerat airatu.

8

Chuchen eta gora badoazi hegaldatuz iguzkira,
Haren inharreri hurbildanik agur baten erraitera;
Begiak argiz erre ondoan dira itzultzen mendira,
Gorachago berriz altchatzeko beren bultaren hartzera

9

Artzainen etcholek iguzkira orai zuten disdiratzen;
Sorhopilan aldiz ihitza zen mila suz zilharrestatzen;
Arthaldeak mendi mazeletan ikhus zitezken alhatzen.
.....
Anharteangalernazen urrun burrumbaka barreatzen.

J. BARBIER.

AITON BATEN ERIOTZA

¡ Betoz... betozkit oroimen zarrak,
Neregandik ez itzuri,
¡ Atozte bada lagun elkarrak
Jardun zaitezte kantari;
Ishkanbilla ta jolasa gabe
Osoro triste nago ni,
Nere biotz ta buruan jabe
Alayera izan bedi.
¡ Zenbat atsegin, zenbat zorion,
Zenbat algara ta irri
Gaztetasunak ematen dion
Munduan bizi danari!
¡ Doatsutasun ibilkaria,
Urbildu zaitez, ¡ etorri!
Zure laztancho leunagarria
Eman zaidazu gaur neri!

¡ Bañan autatzen zertako nabill
Jolas aien oroimena
Jolasa bada geyazco ezin
Neregandu liekena!
¿ Zertako dabill leya sutuan
Alferrik irudimena
Billatu nayaz emen munduan
Arkitu ez lezakena... !
¡ Ez ote dakit, ai! zer dagoan
Poz-bide oien urrena,
¿ Ez-alda sartu nere gogoan
Aspaldi bear zubena...;!
Nagon mendaro; bakartadean
Sufritu nai det minpena,
Malko saminak ishurtzean
Gozatuko zait barrena.

Ume zoroa nintzan orduan
Eznegon beñere triste,
Gaur berriz penak nere barruan
Eztena darabilkite;
Udazkeneko lore bakanak
Galtzen dirau bezelashe
Larpearturik orricho denak
Aizeak desegiñ arte,
Bizitz nastuen ego zakarrak
Illerira naramate,
Ezdit anima shamurtzen farrak
Lonago ziran ainbeste.
¡ Joshe.... Manthoni.... nere ondora
Arren ta arren; atozte!
Emen albotik ez joan iñora.
¡ Maite maiteak zerate!

Ara seaska (1) urrean dago
Kulunpatu ninduena

(1) *Seaska-Umoia.*

Ori oztu dan baña lenago
Aitu da nere kemena;
Ain da labarra gure bizia
Nola egun motz batena.
Anets-aldi bat, anterezlia,
Ezercho ez, utsa, azkena;
Da nua daukat umoi ortatik
Oyera pozez irtena.
Ezdei sentitu iñun geroztik
Lenaz or senti nuena.....
¡ Ai, nere ama, ¡ ama gaslua!
Ama zan maitetsuena
Seaskachoan lo... lo... gozua
Arazlea oi ziradena.

Bai, goguan det nola ziraden
Goizero egun sentian
Begiratuta farrez ematen
Mushu bat espain tartian;
Goguan daukat neri gabero
Nola bere magalian
Dot doi goshuan gelditz, geldiro
Begiyak ishtea zizkian;
Etzait artuko nola ¡ gajua!
Gaizkitu nintzan batian
Egon zan oso minertua
Negarrez aldamenian.
Bai, ondo dakit inor ezaña
Iñor ez emen lurrian
Zuk aña maite nindunik ala
Zorion bete betian.

Gogoz arturik aren bularra
Eder oparotsuena,
Eman oi ziran amak indarra
Eman oi ziran gallena;
Ogei bat urte nituenian
Aldapa danik luzena
Irrinz-oyuka lagun artian
Igotzen nuan aurrena;
Ogei kolpetan ibaitze nuan
Aizkoraz pago zallena,
Famaren egoz tantor altuan
Ipiñi nabea ezena...
Bañan arkaitz bat lenago izanik,
Mutill indartsu, ferdena,
Oraiu... eznaiz ni arkaitza, baizik
Amildutako lurmena.

Oyuka dator negu beltzaren
Eraso bildurgarria,
Oñazkarra ta chimist ondoren
Turmoi durunba ta azia;
Elurra dakust mendi gañetan
Maindire lanbo churia,

Laster neroni modu orretan
Egongo naiz eztalia.....
Gashua daukat, illa biotza
Kopeta jelaz bustia.
Lurtarra naiz ta zerabe otza
Nola dan emen guzia.....
¡ Eme zentzoa...! ¡ nora zoazkit?
¡ Zer det ikusten ordia!
¡ Ezurruts-utsgk Iduri zaizkit
Lizarra pago ta urkia.....

¡ Atoz neregan Joshe maitia,
Atoz aguro Manthoni,
Atozte biyok nere bizia
Aitu baño len mushu bi
Azken aldiyaz gaur emaitera.....
¡ Atoz Joshe zu lenbizi!
Urbildu zaitez aldamenera....
Orlashen... eultzi... bai... ¡ tori!
Orain atoz zu bertute-lora
¡ Atoz laztandutzera ni!
Antima laster arin or gora
Urrundatuko zait neri.
Jaso zaidazu kontuz burua
Ta idiki leyatill ori.
Eguzkiyaren argingurua
Arratsa nola dan aurki
Loramendiko bizkar gañetik
Agur eginaz berari
Zokora jeistea logirotzrik
Nai nuke arren ikusi.....

¡ Zeñen kerizpe illuna bean,
¿ Zein triste dan au ageri,
Anche bakarrik, mendi gañean,
An dago zerbait uztargi.....
Baña eguzkiak agur egin du
Illunabarra da sarri.....
¡ Illezera nua! Manthoni ; eldu!
Otza datorkiot eri.....
¡ Atoz berriro, atoz nigana,
Eman deiegun alkarri
Laztan aldi ta mushucho bana.....
¡ Atoz berriro. . Man... tho... ni.

EMETERIO ARESE, Tolosakoa.

Bayonne, imp. L. Lasserre.

N° 4.

ESKUARAREN ALDE [1]

ESKAINIA,

DENA DENARENTZAT,

NERE JAUN INCHAUSPE

ESKUALZALE HAUTAKOARI.

(OTSAILAREN 28AN 1902GARRENEAN.)

Eskuarak baditu, ohart dakiokenarentzat, dohain berezienak. Bertzerik ez aiphatzeko, mintzairetan *zaharrena* da eta *ederrena*.

Aithor dugu ordean, ez gaitezkeela dohain horietaz gure baitharik mintza. Egin dezakeguna, eta bihotz osoz egiterat goazina da, lekhuko goretsienen erakhartzea.

I. Mintzairetan « zaharrena » da « Eskuara »

§ 1. Gutiegi laiteke, Babelgo dorretik dathorrela erraitea. Uholdea baino ere lehenagodanik, gure lehen burasoetarik dathorkigu. Huna hemen Eskualzale hautakoen lekhukotasunak.

Nere Jaun INCHAUSPE, aphez aintzindari, Eskualdunen lore narraiorik gabea, mintzo zaroku dioelarik : « Jakintsunek begien aintzinean hartua dute *Eskuara*,... zoinak lehen burasoetarik da-

(1) *Plaidoyer en faveur de la Langue Basque* : sujet donné au Concours en 1901. Ce travail a remporté le prix annuel, fondé par feu A. d'Abbadie-d'Arrast, de l'Institut.

thorrela baitiduri. » (*Le Verbe Basque*, 1856, p. V.) — Eta dio halaber : « Bertze mintzaira guziak aphaletsiaz doazilarik, adimendua zorionekin beha dagoko eskual mintzairaren edertasunari,... oraidino ere ezagutarazten baitaroku, nolako zaitekeen gizonaren mintzaira, bekhatua egin ez zelarik. » (*Ibidem*, p. 508.) — Eta dio bertzalde : « Ez othe da, oi zu, Berbo egin gabetakoa, mintzaira hortan agertzen, nola zindioen hastapenetik gizonari mintzatzen irakatsi! » (*Ibidem.*)

Huna zer zioen, 1827an, Darrigol,(2) bertze aphez buruzagi, eskualzale ezin aski miretsiak : « Mintzaira batek, naturalezaren arauerako eta gizon izatearen hastapenetik delako itchurapenak baditu, bere Hitz berezkuntza (*Classification des mots*), asmatu den laburrena eta ikhus errechena balinbadu. Eskuarak bada berezkuntza hori, mintzaira guzien artean, laburrena du eta ikhus errechena, ezagut dezakeena batbederak, Izenaz (*Substantif*), eta Eraskitzaz (*Verbe*) [1] emaiterat deramatzagun chehetasuneri ohartuz. » (*Dissertation sur la Langue Basque*, p. 22.) Eta, horri darraikola, chehetasun hek emanik, berak ederki derasa : « Eraskitzaz kampoko hitz mota guziak, *Izen* choilera sartzen eta bihurtzen ditu *Eskuarak;* ez ditu beraz, ororen buru, bi hitz mota baizik, *Izena* eta *Eraskitza* : hortan delarik agertzen, Eskuarako Hitz berezkuntzaren laburtasun eta ikhus errechtasun berdinik gabekoa. » (*Ibid.*, p. 55-90.)— Hortarik dathor, naturalezaren arauerako eta hastapenetik delako itchurapenekin dakusagula *Eskuara*.

(1) *Eraskitza* est employé par les Grammairiens basques pour désigner *le Verbe*. (V. *Etudes gramm. sur la Langue Euskarienne* par A. Th. d'Abbadie, 1836, p. 32.)

(2) Le savant et vénérable M. Darrigol était alors Supérieur du Grand Séminaire de Bayonne.

Darrigol berak begietan hartu zuen, Dom Calmet XVIIIeren mendeko benediktanoaren errankisun bat : « Mintzaira hebrearen naturalezak, zioen Dom Calmetek, erakusten du, munduaren hastapenetik dathorrela. Laburrenak eta errechenak dire ezen naturalezaren harahunatak, eta hebreako Eraskitzak hirur ahapaldi (*syllabes*,) choiletako Hitz buruak (*radicaux.*) agerian baditu. » (*Dissertation sur la prem. langue.*) — « Bainan, dio Darrigolek, Eskuarak hortarik ere *garaia* badu, ahapaldi bakharreko hitz buruak bere Eraskitzean baititu : hala nola har, has, hel, hez, hets, hil, jan, jar, jo, eta zembat bertze. Trenka dezagun beraz erranez, hebreak baino hobeki, Eskuarak badituela, buru hortarik ere, naturalezaren arauerako eta hastapenetik delakoaren itchurapenak. » (*Dissert. sur la Langue Basque*, p. 16-18.)

Dom Calmetek, berean bere, bazerasan oraino : « Hastapeneko mintzairak, izate guzien zoin bere naturalezaren arauera izendatzea, *baitezpadako* zuen. » (*Dissertation sur la prem. langue.*) — Hitz hortaz orobat jabetzen delarik, Darrigol bihurtzen zaio, erranez : « Horrelakoche da bethidanik Eskuararen urhaspidea. » (*Dissert. sur la Langue Basque*, p. 25.) Eta Jainkoaren izen soberanotik hasiz, zeruko argizarietan behera jausten delarik, urthe, hilabethe, aste, egun, hala nola ibai, mendi, herri, izaite ohartgarrienak erakusten ditu, eskual mintzairan, bere naturalezaren arauera izendatuak direla (*Ibid.*, p. 25-39). « Hortan ere beraz, *Eskuara*, naturalezaren urhatsari badarraiko, eta hastapenetik delako seinale garbienak baditu. » (*Ibid.*)

Chaho, güre orhoiteko eskualzale, Eskualduneri eta Eskuarari behatzen zaizkoten zortzi liburu ar-

gitaratu dituenak, zioen : « Hastapenaren buru gorenetik dathoz Eskualdunak eta Eskuara. » (*Grammaire Euskarienne*, 1836, p. 4.)

Nere Jaun Darricarrere, hirur mintzairetako hiztegi bat (*Dictionn. basque, franç., esp.*) argitaratzen hari duenak, *Eskuara* deitzen du : « Mintzairen arbaso arrozterat utzia, mende suntsituen lekhuko goresgarria. » (*La Langue Basque et les Idiomes Aryens*, 1885, p. 3.)

§ 2. Bainan Eskuara hastapenetik balinbadathor eta mintzairen ama zahar edo arbasoa balinbada, mintzaira guziak behar dire, ararteko bederen, Eskuaratik atheraiak izan.

Jaun Darricarrere hor aiphu dugunak zioen : « Eskuarak baditu mintzaira zaharrekilako barnatasunak, noizbeit ezagutaraztekoa dugun bezala. » (*Ibidem.*) Eta, agindu zuen lan horri buru emanez, zioen : « Sanskritak eta mintzaira indo-uropanoek Eskuararekilako *hitz buru* beretarik baditzute, eta dadukagu, hitz buru heien ithurburu gorena Eskuaratik daritzala. » (*La Langue Basque et les Idiomes Aryens ;* 2e Essai d'analyse, 1898, p. 55.)

Huna nola mintzo zen, bere aldetik, A.-Th. d'Abbadie, bertze eskualzale berezia : « Mintzaira lapones, hongroas, finnoas, latin, hebrea, araba, eta jeorjianoak baditzute Eskuararekilako *hitz buru* berak. » (*Etudes gramm.*, 1836, p. 22.) Eta zioen oraino : « Uropako mintzaira gutiz gehienetan aurkhitzen ez dugun *moldura* berezi bat, Eskuarak eta Amerika zaharretako mintzairek, elgarrekilakoa badute. » (*Ibid.*, p. 2.)

Beaudrimont, frantses irakastun aiphatuak, orobat zioen : « Frantsesak baditu Eskuaratik baizik ez datborzkioken hitzak. Lurreko mintzaira guziek, Eskuaratikako hitzak baditzute. » (*Vocabulaires comparés*, 1854, p. 271.)

Espagnolle deritzon jaun aphezak, Parisen argitaratu berri du liburu bat, zointan baitio Eskuarari eta Grekari khausitu diozkatela, zortzi ehun bat hitz, bati bertzearenak, eta, Eskuara harek baino trebeago dutenek, khausi detzoketela gehiago. (*Origine des Basques*, passim.)

Hurbil hurbilean ere, ikhusia badugu, moldiztegirat abian duten *eskuthitz* bat. Badakhar harek ere, mintzairetan zaharrena eta mintzaira guzien ithurburu gorena dela Eskuara. Damurik ez baitetzakegu haren arrazoinak erakhar.

Guzien buru bada, Eskuara othe dugu, hizkuntzketari jendekia guzien ondotik ibilia? Ala bertze mintzairak dire Eskuararen ithurburutik jariatuak?

II. « Eskuara » da mintzairetan « ederrena »

§ 1. Atseginekin dakharragu, buru buru huntan, gure Axular gogoragarriaren hitza : « Badirudi bertce hitzcuntça eta lengoaya comun guztiac bata bertcearequin nahasiac direla ; baiña euscara bere lehenbicico hastean eta garbitasunean dagoela. » (*Gueroco-Guero*, 1642, p. 20.)

Harriet, Larresoroko notariak, bere Gramatikan, noiz nahi begietarat bademazka Eskuararen aberastasun ederra eta frantsesaren eskasia murriztza. (*Gram. eskuaraz eta francesez*, 1741.)

Guillamu de Humboldt, alamanak, Harriet horren Gramatikan eta Aita Larramendi jesuita aiphagarriaren Hiztegian, ikhasirik *Eskuara*, hanitz

mintzaira zahar eta berritan trebe zelarik, *Eskuara* deitzen zuen : « Mintzaira bat, bertze mintzaira guziez goragokoa. » (*Berechtigunehen... oder Baskische Sprache,* 1817.) [Voir *Etudes gramm.*, par A.-Th. d'Abbadie, 1836, p. 34.]

Lecluze, frantses jakintsunak, eskual gramatika bat moldaturik, hartan zioen : « Eskuararen oraiko edertasunak ezagutarazten du, nolako zaitekeen hastapeneko haren distiradura. » (*Gramm. basque*, 1826, p. 32.)

Chaho, erran denak, ederki bazioen : « Eskuara da mintzaira bat gizonez goragodanikakoa, gizonak dabilkeen aberatsena. » (*Gramm. Eusk.*, p. 3.) « Lurreko jendekia guziek balukete zeren ikhas dezaten. » (*Ibid.*, p. 184.)

Nere jaun Julien Vinson, Parisen, Iguzki aldeko mintzairen irakastun goretsia da, eta, diotenaz, ez Eskualdunenganat ichuria. Jaun horrek ere bazioen : « *Eskuara*, latinarekin, grekarekin, frantsesarekin. eta kide hortako bertze mintzairekin, bekhoz bekho jar dezagun, eta harritua dagoen ikhuslierrari badiduriko, gizonetan ederrena dakusala, ñaño itchuchi batzuen aldean. » (*Mélanges de ling.*, p. 216.)

§ 2. Bainan, mintzaira baten hitz nagusia *Eraskitza* balinbada, eta Eraskitzaren molduratik balinbadathor haren edertasun gutiagoko edo gehiagokoa, zer erran gure Eraskitzaz?

Don Arturo Campion, eskual herrietan aiphu eta maite dugunak, bere Gramatika prezagarriaren hastetik dio : « Eskual *Eraskitza* eraskitz aberatsenetarik da, ez bada ere guzietarik aberatsena. » (*Gramatika de la Lengua Euskara,* 1884, p. 19.)

Eta Lecluze aiphu ginduenak, gure Eraskitzaz zioen : « Eskuarak ez balu ere, bere distiradura zaharretik, Eraskitza baizik begiratu, merezitzen luke ikhasia izaitea. » (*Gramm. basque,* p. 86.)

Gure Darrigolek agerian ezarri du eskual Eraskitzaren moldura. Nere Jaun Inchauspek eta Don Arturo Campionek hedatu dute eta daitekeen ederkiena goretsi.

Nere Jaun Inchausperen eskutik atheraia badugu *Le Verbe Basque,* 1856[ean] argitaratua, liburu bat in-4°, 508 plama edo horri alderditakoa, zoinaren Aintzin-Solasean baitio : « *Eskual Eraskitza* Eskuararen edergailu nagusia da... Erdara guzietako eraskitzak baino goragoko da, hala nola oihaneko haritza, bere oinetako brana edo ilharraskia baino goragoko baita. » (*Le Verbe Basque*, p. VIII.)

Huna azkenean lekhukotasun bat, ez naski arbuiagarria : « *Institut de France* deritzon, jakintsun aiphagarrienen bilkhurak, Konde Volneyk fondatua zen *Garait-Saria*, eman zioen, 1830[eko] urthean, gure Darrigol ezin aski miretsiari, hemen hastetik aiphu gintuen eta Eskuarari behatzen zaizkon chehetasunentzat; bainan eman zioen, oroz gainetik, *Eskual Eraskitzari* behatzen zaioenaz, argitaratu zituen chehetasun gogoragarrientzat. » (*Etudes gramm.*, par A.-Th. d'Abbadie, 1836, p. 13.)

Ezin akhabatuko ditugu, *Eskuararen alde* athera ditugun argitasunak, erran gabetarik, nola zorionez zoratu zuen Eskuararen edertasunak, gure Bernard Dechepare, Eyheralarreko Erretor, ezin ahantziko dena. Eskualdunetan harek lehenik, 1545[ean], Bordeleko moldiztegirat ereman zuen,

neurthitzetazko bere *Eskuthitza*. Ez zuen hau ordukotzat utzi, azken buruan eratchiki gabe, zazpi kobla ederretan, Eskuararen laudorio bozkariagarria. Huna kobla hetarik bija hobekienik dozkigunak.

Heuscara,
Ialguiadi campora.
Berce jendec vsteçuten
Ecin iscriba çaitequen;
Oray dute phorogateen
Enganatu cirela.
Heuscara,
Ialguiadi campora.

Heuscara,
Ialguiadi mundura.
Eceyn ere lengoageric,
Ez frantcesa ez berceric,
Oray ezta erideiten
Heuscararen pareric.
Heuscara,
Ialguiadi mundura.

Horiek eta holakoak ziren, Eskuararen *Sortzeberriari* zeratchizkon laudorioak.

Erranak erranik bada, nori ez lakiguke behar iduritu, mintzairetan *zaharrena* eta *ederrena* dela Eskuara?

MARTIN LANDERRECHE,
Aphez Buzunariztar,
Donijuane Lohitzunen nagoena.

Neure zuzenak neure.

Bayonne. — Imp. Lasserre, [illegible] rue Gardette

1900 GARRENEAN

Askaingo bestetan garaitsaria

EREMAN DUTEN NEURTHITZAK

IRATIKO ARTZAINA

1



2

Choragarri da bortua,
Elhurra bada urthua :
Bazka gizenen badu hautua,
Uda negu urtatua :
Choragarri da bortua,
Elhurra bada urthua.

3

Gora fagoa hedatzen !
Berotik nau gerizatzen :
Gauak zerua du urheztatzen,
Ihintz gozoak ichurtzen :
Gora fagoa hedatzen !
Berotik nau gerizatzen.

4

Errege dugu jarria
Marro bulumba larria :
Utzirik dabil bozik herria,
Adar handi bihurria :
Errege dugu jarria
Marro bulumba larria.

5

Ardiak dohaz ondotik,
Bulumba hasiz geroztik :
Berrehun goare ozen lephotik,
Athera ziren herritik :
Ardiak dohaz ondotik,
Bulumba hasiz geroztik.

6

Otseho, buru zabala,
Handi duk hire ahala.
Behar orduko baduk uhala
Sendo burdiña bezala :
Otseho, buru zabala,
Handi duk hire ahala.

7

Atzain bagare mendian
Saro zabalen erdian :
Chirola dugu eguerdian,
Pilota bere aldian :
Artzain bagare mendian
Saro zabalen erdian.

8

Olha zaharren barnetan,
Koblak, euria denetan,
Errepikatzen dire artetan,
Bi eta hirur bozetan :
Olha zaharren barnetan,
Koblak euria denetan.

9

Chantcho, nik maite dudana,
Da chirolaz hoberena :
Hurbilarazten du beregana
Kharmin artzain mokhorrena:
Chantcho, nik maite dudana,
Da chirolaz hoberena.

10

Choratzen du arthaldea
Uzterat alhapidea,
Otsoak ere galtzen gosea,
Guganat hartzen chedea!
Choratzen du arthaldea
Uzterat alhapidea.

11

Chirolak ditu oihanak
Hasperenetan emanak!
Errekan dire jausten auhenak,
Chirolari daudezenak!
Chirolak ditu oihanak
Hasperenetan emanak.

12

Bortuan sasoin ederra!
Chantchori diot eskerra.
Baderamakot, neure beharra,
Mizpira baten adarra.
Bortuan sasoin ederra!
Chantchori diot eskerra.

13

Nik badut kaiku berria
Chantchok aurthen ekharria:
Zurean lanthuz du ezarria
Jauzikotan gazteria :
Nik badut kaiku berria
Chantchok aurthen ekharria.

14

Ibaia doha luzatuz,
Itsas alderat handituz :
Ithurburuan ahuspekatuz,
Suntsitzen dut hurrupatuz :
Ibaia doha luzatuz,
Itsas alderat handituz.

15

Hedoia dathor airetan
Su sarkhorrak erraietan!
Ihortziria samin denetan,
Zeinhatzen naiz ikharetan!
Santa Barbara, ni baithan,
Balia zaizkit gau huntan!

16

Iguzkia bada sartzen,
Belhauniko gare jartzen.
Igandez *Credo* dugu kantatzen;
Oihartzunak ihardesten!
Bihotzak dire mugitzen
Eta begiak bustitzen.

17

Harrotzen dut hausperria,
Aphaintzeko janaria :
Urdai, esneki, talo berria!
Lakhet dugun hazkurria;
Ikhus artean herria
Hoiche da gure bizia.

18

Zimaildurik iratzea,
Egiten dut ohatzea.
Ez baita luze loharkatzea,
Maiteekin mintzatzea;
Egik, Otseho, zaintzea,
Etsaiekin hizkatzea.

19

Azkainen bestak badire,
Ezin gohazke batere :
Igortzen ditut hemen halere
Goraintzi choil hauk nik ere!
Kantatzen ahal badire,
Ez dut galdetzen deus ere.

MARTIN LANDERRECHE,
Aphez Buzunariztar
Getharian nagoena.

NEURE ZUZENAK NEURE.

Bayonne. — Imp. Lasserre.

1900 GARRENEAN

Askaingo bestetan garaitsaria

EREMAN DUTEN NEURTHITZAK

IRATIKO ARTZAINA

1



2

Choragarri da bortua,
Elhurra bada urthua :
Bazka gizenen badu hautua,
Uda negu urtatua :
Choragarri da bortua,
Elhurra bada urthua.

3

Gora fagoa hedatzen!
Berotik nau gerizatzen :
Gauak zerua du urheztatzen,
Ihintz gozoak ichurtzen :
Gora fagoa hedatzen !
Berotik nau gerizatzen.

4

Errege dugu jarria
Marro bulumba larria :
Utzirik dabil bozik herria,
Adar handi bihurria :
Errege dugu jarria
Marro bulumba larria.

5

Ardiak dohaz ondotik,
Bulumba hasiz geroztik :
Berrehun goare ozen lephotik,
Athera ziren herritik :
Ardiak dohaz ondotik,
Bulumba hasiz geroztik.

6

Otscho, buru zabala,
Handi duk hire ahala.
Behar orduko baduk ahala
Sendo burdiña bezala :
Otscho, buru zabala,
Handi duk hire ahala.

7

Atzain bagare mendian
Saro zabalen erdian :
Chirola dugu eguerdian,
Pilota bere aldian :
Artzain bagare mendian
Saro zabalen erdian.

8

Olha zaharren barnetan,
Koblak, curia denetan,
Errepikatzen dire artetan,
Bi eta hirur bozetan :
Olha zaharren barnetan,
Koblak curia denetan.

9

Chantcho, nik maite dudana,
Da chirolaz hoberena :
Hurbilarazten du beregana
Kharmin artzain mokhorrena :
Chantcho, nik maite dudana,
Da chirolaz hoberena.

10

Choratzen du arthaldea
Uzterat alhapidea,
Otsoak ere galtzen gosea,
Guganat hartzen chedea!
Choratzen du arthaldea
Uzterat alhapidea.

11

Chirolak ditu oihanak
Hasperenetan emanak!
Errekan dire jausten auhenak,
Chirolari daudezenak!
Chirolak ditu oihanak
Hasperenetan emanak.

12

Bortuan sasoin ederra!
Chantchori diot eskerra.
Baderamakot, neure beharra,
Mizpira baten adarra.
Bortuan sasoin ederra!
Chantchori diot eskerra.

13

Nik badut kaiku berria
Chantchok aurthen ekharria :
Zurean lanthuz du ezarria
Jauzikotan gazteria :
Nik badut kaiku berria
Chantchok aurthen ekharria.

14

Ibaia doha luzatuz,
Itsas alderat handituz :
Ithurburuan ahuspekatuz,
Suntsitzen dut hurrupatuz :
Ibaia doha luzatuz,
Itsas alderat handituz.

15

Hedoia dathor airetan
Su sarkhorrak erraietan!
Ihortziria samin denetan,
Zeinhatzen naiz ikharetan!
Santa Barbara, ni baithan,
Balia zaizkit gau huntan!

16

Iguzkia bada sartzen,
Belhauniko gare jartzen.
Igandez *Credo* dugu kantatzen ;
Oihartzunak ihardesten!
Bihotzak dire mugitzen
Eta begiak bustitzen.

17

Harrotzen dut hausperria,
Aphaintzeko janaria :
